

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

27/2021 Foru Araua, azaroaren 24koa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena berresteko, egungo AP-1 autobidearen eta A-1 errepidearen arteko konexioan, Armiñongo lotunean, sarrera adarren edukiera bi noranzkoetan handitzeko obrak finantzatu eta gauzatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

27/2021 Foru Araua, azaroaren 24koa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena berresteko, egungo AP-1 autobidearen eta A-1 errepidearen arteko konexioan, Armiñongo lotunean, sarrera adarren edukiera bi noranzkoetan handitzeko obrak finantzatu eta gauzatzeko.

Konstituzioak 149.1.21 artikuluan Estatuaren esku uzten du autonomia erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gaineko eskumen esklusiboa.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsitako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulua ezartzen duenez, errepide eta bideen arloan, Konstituzioaren 148. artikuluko 5. zenbakiko 1. zenbakian jasotako eskumenez gain, lurralde historikoetako foru aldundiek oso-osorik gordeko dituzte beren araubide juridikoa eta eskumenak, edo, hala bada, gorkio, Autonomia Estatutuaren 3. artikulua arabera berreskuratuko dituztenak. Era berean, konstituzio xedapen horrek aukera ematen die autonomia erkidegoei errepideen arloko eskumenak beren gain hartzeko, baldin eta errepidearen ibilbide osoa autonomia erkidegoaren lurraldean egiten bada, eta, baldintza berberetan, bide horretatik egiten den garraioaren arlokoa.

Irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez, errepideen arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari. Haien lege erreferentziak ageri dira Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.34 eta 10.35 artikuluetan eta, zeharka, azaroaren 7ko 3140/1975 Errege Dekretuan (Errepideei buruzko abenduaren 19ko 51/74 Legearen egokitzapenari buruz), zeinak Arabako Foru Aldundiari esleitu baitzion Arabatik igarotzen diren Estatuko errepide zatien gaineko eskumena).

Abenduaren 3ko 1414/2018 Errege Dekretuaren bidez (errepideen arloan irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa), Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion AP-1 autobidearen zati baten titulartasuna, hain zuzen, Burgosko eta Arabako probintzien arteko mugaren (77+200 kilometro puntua) eta autobidearen amaierako Armiñongo 7. lotunearen artean (83+200 kilometro puntua), bidesaririk gabe erabiltzeko baldintzetan, bai eta dagozkion eginkizunak eta zerbitzuak ere, ordura arte Estatuko Administrazio Orokorak egikarituak, ezertan eragotzi gabe foru aldundiek arlo horretan dituzten eskumenak.

Bestalde, martxoaren 26ko 48/2019 Dekretuaren eta martxoaren 26ko 17/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzia Batzorde Mistoaren 2019ko martxoaren 20ko Akordioa, aipatutako autobide tarte Arabako Foru Aldundiari eskualdatzeko, aipaturiko dekretuen argitaratze egunetik aurrerako ondorioekin. Argitaratze hori 2019ko apirilaren 1ean egin zen.

Errepidea kudeatzeko sistema aldatu egin denez, beharrezkoa da egungo azpiegitura, proiektuan erabiltzailearentzako ordainpeko autobide gisa jasoa, bidesaririk gabeko kudeaketa eredu berri batera egokitzea.

Horretarako, egungo AP-1 autobidearen eta A-1 autobidearen lotuneak, bi noranzkoetan sarbide adarren edukiera handitzeko obrak behar ditu, abenduaren 3ko 1414/2018 Errege Dekretuaren eranskinaren B) 3 atalean jasotzen den bezala. Obra horien barruan daude Irun-Madril noranzkoan bide banaketa bat egitea eta Madril-Irun noranzkoan bide elkarketa bat egitea.

1 zenbakiko akordio osagarrian xedatzen da kasuan kasuko hitzarmenaren bidez adostuko direla AP-1aren eta A-1aren arteko lotunean sarrera adarren edukiera bi noranzkoetan handitzeko jarduketak. Hitzarmen horretan Estatuak finantzaketa osoa bere gain hartuko duela zehaztuko da.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak premiazkoztat jotzen dute egungo AP-1 eta A-1 lotunearen sarbide adarren bi noranzkoetan edukiera handitzeko lanei ekitea, Armiñongo lotunean.

Horiek horrela, lankidetzaz hitzarmena izenpetu beharra dago, klausuletan ezarritakoaren arabera, aldeek beren gain hartutako konpromisoak bete ditzaten, hitzarmeneko xedeak gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak onetsi du lankidetzaz hitzarmena izenpetzea, bat etorritz 52/1992 Foru Arauak 8.7. artikuluan ezarritakoarekin (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena), eta bidezkoa da Arabako Batzar Nagusiek akordio hori berrestea, aipatutako araudiaren 6.1.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Era berean, maiatzaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretuko I. eranskinek 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz izapidetu da (Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, onespina ematen diena xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero inpaktuari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza jarraibideei).

ARTIKULU BAKARRA

Berretsi egiten da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena, egungo AP-1aren eta A-1aren arteko lotunean bi noranzkoetako sarrera adarren edukiera handitzeko lanei ekiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 24a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA



**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDAREN
MINISTERIOAREN ETA ARABAKO FORU
ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, EGUNGO AP-1
AUTOBIDEAREN ETA A-1 AUTOBIAREN ARTEKO
LOTURAREN BI NORANZKOETAKO SARRERA
ADARREN GAITASUNA HANDITZEKO OBRAK
FINANTZATU ETA GAUZATZEKO, ARMIÑONGO
LOTUNEAN**

**CONVENIO ENTRE EL MINISTERIO DE TRANSPORTES,
MOVILIDAD Y AGENDA URBANA Y LA DIPUTACIÓN
FORAL DE ÁLAVA PARA LA FINANCIACIÓN Y
EJECUCIÓN DE OBRAS DE AMPLIACIÓN DE
CAPACIDAD DE LOS RAMALES DE ACCESO EN AMBOS
SENTIDOS DE LA CONEXIÓN DE LA ACTUAL AP-1 CON
LA A-1 EN EL ENLACE DE ARMIÑÓN**



GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, EGUNGO AP-1 AUTOBIDEAREN ETA A-1 AUTOBIAREN ARTEKO LOTURAREN BI NORANZKOETAKO SARRERA ADARREN GAITASUNA HANDITZEKO OBRAK FINANTZATU ETA GAUZATZEKO, ARMIÑONGO LOTUNEAN

....., 2021eko ... aren.....(a)

BILDUTAKOAK

Alde batetik,

Isabel Pardo de Vera Posada andrea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren estatu idazkaria, uztailaren 27ko 669/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera, eta Sustapen Ministerioan eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 23ko FOM/1644/2012 Aginduaren, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren egitura organikoa garatzen duen uztailaren 7ko 645/2020 Dekretuak berretsi duenaren, zazpigarren.1 apartatuan eskuordetutako eskumenak baliatuta, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren ordezkartzan

Eta, beste aldetik,

Ramiro González Vicente jauna, Arabako diputatu nagusia, Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzan, Arabako Foru Aldundiaren Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (ALHAO, urtarrilaren 25ekoa, 9/1993 zk.).

Bi alderdiek, bakoitzak esku hartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

CONVENIO ENTRE EL MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA PARA LA FINANCIACIÓN Y EJECUCIÓN DE OBRAS DE AMPLIACIÓN DE CAPACIDAD DE LOS RAMALES DE ACCESO EN AMBOS SENTIDOS DE LA CONEXIÓN DE LA ACTUAL AP-1 CON LA A-1 EN EL ENLACE DE ARMIÑÓN

En, a ... de de 2021

REUNIDOS

De una parte,

D^a. Isabel Pardo de Vera Posada, Secretaria de Estado de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, en virtud del nombramiento efectuado mediante Real Decreto 669/2021, de 27 de julio, y en el ejercicio de las competencias delegadas en el apartado Séptimo.1 de la Orden FOM/1644/2012, de 23 de julio, sobre delegación de competencias en el Ministerio de Fomento, ratificada por Real Decreto 645/2020, de 7 de julio, por el que se desarrolla la estructura orgánica básica del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, en representación del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana

Y de otra,

D. Ramiro González Vicente, Diputado General de Álava, en representación de la Diputación Foral de Álava, de acuerdo con lo previsto en el artículo 19.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava (BOTH A N^o9/1993, de 25 de enero).

Ambas partes, en la calidad en que cada uno interviene, se reconocen recíprocamente la capacidad legal para el otorgamiento del presente convenio, a cuyo efecto



ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Konstituzioak, 149.1.21 artikuluan, estatuari ematen dio autonomia erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen eta lehorreko garraioen gaineko eskumen esklusiboa.

Bigarrena. Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10.34 artikuluan xedatzen duenez, errepide eta bideen arloan, Konstituzioaren 148.1.5 artikuluan jasotako eskumenez gain, lurralde historikoetako foru-aldundiak oso-osorik gordeko dituzte beren araubide juridikoa eta eskumenak, edo, hala badagokio, autonomia estatutu horren 3. artikulua arabera berreskuratu beharrekoak. Halaber, aipatutako konstituzio aginduak aukera ematen die autonomia erkidegoei ibilbide osoa autonomia erkidegoaren lurraldean egiten duten errepideen arloko eskumenak beren gain hartzeko, bai eta, baldintza berberetan, bide horretako garraioa ere.

Hirugarrena. Irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eman zitzaizkion errepideen arloko eginkizun eta zerbitzuak. Haien legezko erreferentziak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.34 eta 10.35 artikuluetan eta, zeharka, Errepideei buruzko abenduaren 19ko 51/74 Legea egokitzeari buruzko azaroaren 7ko 3140/1975 Errege Dekretuan daude (Arabako Foru Aldundiari esleitu zizkion Arabatik igarotzen diren estatuko errepide zatien gaineko eskumenak).

Laugarrena. "Euskal Autonomia Erkidegoari irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez errepideen arloan eman zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzko abenduaren 3ko

EXPONEN

Primero. La Constitución, en el artículo 149.1.21.ª, reserva al Estado la competencia exclusiva sobre ferrocarriles y transportes terrestres que transcurran por el territorio de más de una Comunidad Autónoma.

Segundo. El artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que, en materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el apartado 5, número 1, del artículo 148 de la Constitución, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostentan o que, en su caso, hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de dicho Estatuto de Autonomía. A su vez, el precepto constitucional citado permite a las comunidades autónomas asumir competencias en materia de carreteras cuyo itinerario se desarrolle íntegramente en el territorio de la comunidad autónoma y, en los mismos términos, el transporte desarrollado por este medio.

Tercero. Mediante el Real Decreto 2769/1980, de 26 de septiembre, se traspasaron a la Comunidad Autónoma del País Vasco funciones y servicios en materia de carreteras, cuyos referentes legales se encuentran en la Disposición Adicional Primera de la Constitución, en los artículos 10.34 y 10.35 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y de forma indirecta en el Real Decreto 3140/1975, de 7 de noviembre, sobre adaptación de la Ley 51/74, de 19 de diciembre, de Carreteras, que atribuyó a la Diputación Foral de Álava las competencias sobre los tramos de carreteras estatales que pasan por territorio alavés.

Cuarto. Que mediante "Real Decreto 1414/2018, de 3 de diciembre, de ampliación de funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto



1414/2018 Errege Dekretuaren” bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari ematen zaio, alde batetik, AP-1 autobidearen zatiaren titulartasuna, Burgos eta Araba probintzien arteko mugaren (77+200 kilometro puntua) eta autobidearen amaieraren (Armiñongo 7. lotunea, 83+200 kilometro puntua) artekoa, bidesaririk gabe erabiltzeko; bestetik, orain arte Estatuko Administrazio Orokorrek bete dituen eginkizunak eta zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiak arlo horretan dituen eskumenak alde batera utzi gabe.

Bosgarrena. Bestalde, martxoaren 26ko 48/2019 Dekretuaren eta martxoaren 26ko 17/2019 Foru Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko martxoaren 20ko Akordioa onartu zen, aipatutako autobide zatia Arabako Foru Aldundiari emateko. Dekretu horiek argitaratzen direnetik aurrera izango ditu ondorioak (2019ko apirilaren 1ean argitaratu ziren).

Seigarrena. Errepidea kudeatzeko sistema aldatu denez, beharrezkoa da erabiltzailearentzako ordainpeko autobide gisa proiektatu zen egungo azpiegitura ordainsaririk gabeko kudeaketa eredu berri bati egokitzea.

Horretarako, AP-1 autobidearen eta A-1 autobidearen arteko egungo loturan, obrak egin behar dira bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko, abenduaren 3ko 1414/2018 Errege Dekretuaren eranskinaren B)3 apartatuan jasotzen den moduan.

Zazpigarrena. 1. akordio osagarrian ezartzen denez, AP-1 autobidea A-1 autobidearekin lotzeko bi noranzkoetan sarrera adarren gaitasuna handitzeko jarduketak dagokion hitzarmenaren bidez adostuko dira, eta hitzarmen horretan zehaztuko da finantzaketa estatuak bere gain hartuko dela.

2769/1980, de 26 de septiembre, en materia de carreteras”, se traspasa a la Comunidad Autónoma del País Vasco la titularidad del tramo de la autopista AP-1 entre el límite entre las provincias de Burgos y Álava, en el punto kilométrico 77+200, y el final de la autopista en el enlace 7 de Armiñón, en el punto kilométrico 83+200, en condiciones de uso libre de peaje, así como las funciones y servicios correspondientes hasta ahora ejercidos por la Administración General del Estado, sin perjuicio de las competencias que ostenta la Diputación Foral de Álava en esta materia.

Quinto. Por otra parte, mediante Decreto 48/2019, de 26 de marzo, y por Decreto Foral 17/2019, de 26 de marzo, se aprobó el Acuerdo de 20 de marzo de 2019, de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco –Territorio Histórico de Álava, para el traspaso a esta Diputación Foral de Álava del citado tramo de autopista, con efectos a partir de la publicación de los citados decretos, publicación que se realizó el pasado 1 de abril de 2019.

Sexto. Que, con motivo del cambio en el sistema de gestión de la carretera, resulta necesario adaptar la actual infraestructura, que fue proyectada como autopista de peaje al usuario, a un nuevo modelo de gestión libre de peaje.

Para ello la conexión de la actual AP-1 con la A-1 requiere obras consistentes en la ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos, como se contempla en el apartado B)3 del Anexo al Real Decreto 1414/2018, de 3 de diciembre.

Séptimo. Que en el Acuerdo Complementario número 1 se establece que las actuaciones tendentes a la ampliación de la capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos en la conexión de la AP-1 con la A-1 se acordarán a través del correspondiente convenio, en el que se determinará que la financiación es asumida por el Estado.



Zortzigarrena. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak premiazkotzat jotzen dute egungo AP-1 autobidearen eta A-1 autobiare arteko loturaren bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko obrak egitea, Armiñongo lotunean.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako araubidea zehaztea, egungo AP-1 autobidearen eta A-1 autobiare arteko loturaren bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko obrak finantzatu eta gauzatzeko, Armiñongo lotunean.

Obra horien artean, bide banaketa bat dago Irun-Madril noranzkoan, eta elkargune bat Madril-Irun noranzkoan.

BIGARRENA. EPEA

Hitzarmena indarrean egongo da obrak jaso eta likidatu arte, eta gehienez ere lau urteko epean (eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita), estatuko sektore publikoko Lankidetzeta Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Amaierako epea aurreko puntuan ezarritakoa den arren, honako epe partzial hauek ere ezartzen dira:

Eraikuntzako azterlanak eta proiektuak idazteko epea hamasei hilabetekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, epe hori betetzea eragozten duten behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Arrazoi horiek

Octavo. Que el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Diputación Foral de Álava consideran urgente acometer las obras de ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos de la conexión de la actual AP-1 con la A-1 en el enlace de Armiñón.

Conforme a lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, de conformidad con las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA. OBJETO DEL CONVENIO

Este convenio tiene por objeto establecer el régimen de colaboración entre el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Diputación Foral de Álava para la financiación y ejecución de las obras de ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos de circulación de la conexión de la actual AP-1 con la A-1 en el enlace de Armiñón.

Tales obras incluyen una bifurcación en el sentido Irún-Madrid y una confluencia en el sentido Madrid-Irún.

SEGUNDA. PLAZO

El convenio estará vigente hasta la recepción y liquidación de las obras y, como máximo, por un plazo de 4 años desde la fecha en que sea eficaz, una vez inscrito en el Registro Electrónico estatal de Órganos e Instrumentos de Cooperación del sector público estatal y publicado en el Boletín Oficial del Estado.

Sin perjuicio, del plazo total establecido en el punto anterior, se fijan los siguientes plazos parciales:

El plazo para la redacción de estudios y proyectos de construcción será de dieciséis meses a partir de la firma del presente convenio, salvo que concurran razones debidamente justificadas que impidan el



hitzarmen honen Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeak balioetsi beharko ditu.

Obrak lizitatu eta hasteko epea hogeita bi hilabetekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, epe hori betetzea eragozten duten behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Arrazoi horiek Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeak balioetsi beharko ditu.

Hitzarmena beste lau urtez luzatu ahal izango da gehienez, dagokion gehigarria izapidetuz.

HIRUGARRENA. FINANTZAKETA

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatuko ditu hitzarmen honen xede diren obrak, bai eta Arabako Lurralde Historikoan ukitutako ondasun eta eskubideak gauzatzeko behar diren laguntza teknikoak eta desjabetzeak ere, hitzarmen honetan finkatzen den moduan. Gastuen aurrekontuko VII. kapituluan helburu horretarako esleitzen zaizkion zuzkiduren kontura egingo da, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urte bakoitzeko Legearen bidez (17.38.453B.76810 aurrekontu-aplikazioa) edo horren ordezkoko baliokidearen bidez.

2. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatuko ditu Trebiñuko Konderrian ukitutako obrak gauzatzeko behar diren ondasun eta eskubideen desjabetzeak, hitzarmen honetan finkatzen den moduan. Gastuen aurrekontuko VI. kapituluan helburu horretarako esleitzen zaizkion zuzkiduren kontura egingo da, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urte bakoitzeko Legearen bidez (17.38.453B0.600 aurrekontu-aplikazioa) edo horren ordezkoko baliokidearen bidez.

cumplimiento de dicho plazo, que deberán ser apreciadas por la comisión mixta de programación, seguimiento y control de este convenio.

El plazo para la licitación e inicio de las obras será de veintidós meses a partir de la firma del presente convenio, salvo que concurran razones debidamente justificadas que impidan el cumplimiento de dicho plazo, que deberán ser apreciadas por la comisión mixta de programación, seguimiento y control de este convenio.

La vigencia del convenio podrá prorrogarse por un período de hasta cuatro años adicionales, mediante la tramitación de la adenda correspondiente.

TERCERA. FINANCIACIÓN

1. La financiación de las obras objeto del presente convenio, así como de las asistencias técnicas y de las expropiaciones, necesarias para su ejecución, de los bienes y derechos afectados en el Territorio Histórico de Álava, en los términos que se fijan en este convenio, será realizada por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, con cargo a las dotaciones que a este fin se le asignen en el capítulo VII de su presupuesto de gastos, por la Ley de Presupuestos Generales del Estado de cada año, aplicación presupuestaria 17.38.453B.76810, o equivalente que la sustituya.

2. La financiación de las expropiaciones, necesarias para la ejecución de las obras, de los bienes y derechos afectados en el Condado de Treviño, en los términos que se fijan en el presente convenio, será realizada por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, con cargo a las dotaciones que se le asignen en el capítulo VI de su presupuesto de gastos, por la Ley de Presupuestos Generales del Estado de cada año, aplicación presupuestaria 17.38.453B.600, o equivalente que la sustituya.



3. Aipatutako jarduketaren kostua, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatu beharrekoa eta Arabako Foru Aldundiak gauzatu beharrekoa, HAMASEI MILIOI EURO dela kalkulatu da, proiektuak idazteko, desjabetzeak egiteko, obrak gauzatzeko eta horiek garatzeko behar diren laguntza teknikoak emateko kostua barne, urteka honela banatuta:

Urtea Año	Zenbatekoa (euroak) Importe (euros)
2021	5.000
2022	395.000
2023	1.200.000
2024	7.000.000
2025	7.400.000

4. Trebiñuko Konderrrian ukitutako ondasun eta eskubideen desjabetzei dagokien aipatutako jarduketaren kostua, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatu eta betearazi beharrekoa, EHUN ETA HOGEI MILA EURO izango da, urteka honela banatuta.

Urtea Año	Zenbatekoa (euroak) Importe (euros)
2022	20.000
2023	100.000

5. Nolanahi ere, behin betiko kostuak onartutako eraikuntza proiektuen eta adjudikazioen ondoriozkoak izango dira. Jarduketaren zenbateko osoa klausula honetan kalkulaturakoa baino handiagoa bada, soberakina finantzatzeko beste akordio bat beharko dute alderdiek, indarrean dagoen legeriaren arabera eskatu daitezkeen izapideak eta betekizunak bete ondoren.

6. Arabako Foru Aldundiak, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioari jakinaraziko dio

3. El coste de las actuaciones antedichas, a financiar por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, y a llevar a cabo por la Diputación Foral de Álava, se estima en DIECISÉIS MILLONES DE EUROS, incluyendo el coste de redacción de los proyectos, de las expropiaciones, de ejecución de las obras, y de las asistencias técnicas necesarias para su desarrollo, con la siguiente distribución de anualidades:

4. El coste de las actuaciones antedichas, correspondiente a las expropiaciones de los bienes y derechos afectados en el Condado de Treviño, a financiar y a ejecutar por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, se estima en CIENTO VEINTE MIL EUROS, con la siguiente distribución de anualidades:

5. No obstante, los costes definitivos serán los que resulten de los proyectos de construcción aprobados y de las correspondientes adjudicaciones. Si el importe total de la actuación excediera del estimado en esta cláusula, la financiación del exceso requerirá nuevo acuerdo entre las partes, previo cumplimiento de los trámites y requisitos que sean exigibles de conformidad con la legislación vigente.

6. La Diputación Foral de Álava, en el primer trimestre de cada anualidad, comunicará al Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda



urte horretarako aurreikusitako zenbatekoa. Horretarako, hitzarmen honen xede diren obrak gauzatzeko eta horien ondoriozko laguntza teknikoak eta desjabetzeak ordaintzeko dauden gastu konpromisoak egiaztatuko ditu. Hitzarmenean aurreikusitako urte osoko kopuruak betetzean akatsik gerta ez dadin, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta hitzarmenean finkatutako urte osoko kopuruarekiko beherako desbideratzeak ikusten badira, urte osoko kopuruak doitu beharko dira, indarreko legeriaren arabera eskatu daitezkeen izapideak eta baldintzak bete ondoren.

7. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak urte osoko kopuruetan egindako ekarpenak (aurreko taulan adierazita daude) aurrekontuetan kreditua egoteak bermatuko ditu.

8. Baldin eta Aurrekontuen Legeak hitzarmen honetan jasotako konpromisoa baino zenbateko txikiagoko partida bat esleitzen bada, urte osoko kopuruak berriz doitu beharko dira; hala, defizitaren zenbatekoa hurrengo urteetako kopuruei esleituko zaie, ahal bada, nahitaezko izapide eta baldintza guztiak bete ondoren.

LAUGARRENA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1. Arabako Foru Aldundiak, hitzarmena indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, ekitaldian egindako inbertsioa justifikatuko dio hitzarmen honen Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeari, transferentzia jasoko duen organoaren titularrak emandako ziurtagiri baten bidez (jarduketak egin izana jasoko da bertan). Horrekin batera, Arabako Foru Aldundiko kontuhartzaitzak edo kontrol-organo baliokideak emandako txostena aurkeztu beharko da, egindako jarduketak eta ordainketak justifikatzeko dokumentazioa egiazkoa eta erregularra dela ziurtatzeko.

Urbana el importe previsto para esa anualidad, mediante acreditación de los compromisos de gastos existentes para la ejecución de las obras objeto del presente convenio, y para el pago de las asistencias técnicas y expropiaciones derivadas de las mismas. Con el fin de evitar que se produzcan fallos en el cumplimiento de las anualidades previstas en el convenio, si a la vista de la documentación aportada se observan desviaciones a la baja respecto a la anualidad fijada en el convenio se realizará el reajuste de las anualidades necesario previo cumplimiento de los trámites y requisitos que sean exigibles de conformidad con la legislación vigente.

7. Las aportaciones por parte del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana para las anualidades reflejadas en la tabla anterior estarán soportadas por la existencia de crédito en los correspondientes presupuestos.

8. Si la Ley de Presupuestos de un año asigna una partida de importe inferior al compromiso establecido en este convenio, se reajustarán las anualidades de manera que el importe deficitario se asignará a las anualidades siguientes si ello fuese posible, previo cumplimiento de todos los trámites y requisitos que resulten preceptivos.

CUARTA. JUSTIFICACIÓN Y PAGO

